



**Izena:** Traducciones en Red S.L.

**Helbidea:** 123 lur-zatia 804 Bizkaiko Teknologi Parkea

**Udalerria:** 48160 Derio Bizkaia **Telefonoa:** (34) 648016040

**E – mail :** [info@tradutek.es](mailto:info@tradutek.es)

**Web orria:** [www.tradutek.es](http://www.tradutek.es)

### Produktuaren deskripzioa. Zerbitzua.

“Traducciones en Red” ingurune digitaletan zerbitzu eleaniztunak ematen dituen konpainia bat da. TRADUTEK gaitasun eleaniztunak dituzten aplikazio informatikoak eta web guneak, bai kostuei dagokienez zein denborari eta kalitateari dagokionez, era eraginkorrean ezartzeko aukera ematen duen kudeaketa-plataforma da.

Gero eta globalagoa den negozioen arloan, enpresek nazioartekotzea aukeratzen dute gero eta globalagoak diren merkatuetan lehiakorrek izateko estrategiarik egokiena baita. Testuinguru honetan, enpresa ororen nazioartekotzeko strategiaren arrakastaren oinarria baimena emateko, edukiak biltzeko, lokalizatzeko eta bere informazioa argitaratzeko prozesu integratu bat izatea da, hizkuntz, testuinguru eta kultur konbentzio ezberdinetan, era zuzenean, erraz, eta zerbitzu espezializatuaren hornitzaile ezberdinetaz baliatzeko aukerarekin, zuzenean edota zeharka (azpikontratazioa).

Horrela, 2006ko otsailaren 1ean Traducciones en Red sortu zen. Oinarri teknologikoa duen enpresa bat da eta bere jardura “web” bertsio eleaniztunen kudeaketa automatizatuaren zerbitzua ematea da. Sistemak hitzak aztertu eta zenbatzeko, biltzeko, itzulpenak kudeatzeko (eskuz eta talde profesionalen bidez), bertsioak kudeatzeko, informazioa eguneratu eta kudeatzeko aukera ematen du, hau guztia Informazioaren Kudeaketa Globalerako Sistema Integratu baten bidez.

### Merkatuaren deskripzioa

Tradutek-ek kalitatezko produktu-zerbitzu bat eskaintzen du, Enpresarentzako Konponbideen Merkaturako balio erantsi handia duena.

Tradutek-ek eskaintzen duen zerbitzuak arindu egiten du hitzak tratatzeko prozesua, honi lotutako baliabide kopurua eta horrek eragindako kostua gutxituz, beraz garatzeko denborak laburtuz.

Azken urteetan prozesuak eta horiei dagozkien zerbitzuak beste enpresa batzuei azpikontratatzeko joera nabarmena egon da eta azpikontratazio horrek espezializazio kontzeptua bultzatu du, bai zerbitzuetan zein produktuetan, hornitzaile bakoitza jarduteko bi ildo hauetako eremu zehatz batean kokatu delarik: produktua eta zerbitzua. Horrela, gaur egun asko dira “softwarea” bezalako zerbitzuak hornitzen dituztenak, baina oso gutxi informazioaren kudeaketa globalerako sistema bat eskaintzen dutenak. TRADUTEK-ek hutsune hori bete nahi du bere zerbitzuen eta produktuen eskaintzarekin.

**Eraketa urtea:** 2006

**Eguno plantilla:** 2

**Fakturazioa:** 150.000 euro